

EUSKARA 5.3. SINONIMOAK

Ordezka ezazu nabarmendutako hitza bere sinonimoarengatik eta esaldi bukaeran idatz ezazu.

- 1.-**Berebiziko** partida jokatu zuen atzo zure anaiak.
- 2.-Oso **ipurterrea** iruditzen zait emakume hori, edozer galdetuz gero, gaizki erantzuten dizu.
- 3.-Elizako **kanpaiak** etengabe jotzen ari dira.
- 4.-**Iseka** jardun zitzaiolako irakaslearengana kexatzera joan gara.
- 5.- Berriketan sarri ibilitzen delako mari **berritsu** deitzen diote.
- 6.-**Bistakoa** da ariketa hori gaizki egin dagoela.
- 7.-Harek adierazi zuen **kemena**,ez da egunero ikusten.
- 8.-Argia **amatatu** zion irakurtzen ari zen bitartean, oso berandu baitzen.
- 9.-Mutiko **apala** da, ez dauka beste horren antzik!
- 10.-**Guraizeak** behar ditut eskulana bukatzeko.
- 11.- **Arineketan**, mingaina kanpoan zuela, iritsi zen iserdi patzetan.
- 12.-Ibaiek higatutako materiala ibai bazterretan **pilatzen** dute.
- 13.-Berehala **igerri** genion gezurretan ari zela.
- 14.-**Ozta-ozta** iritsi nintzen helmugara, baina lasterketa bukatu egin nuen.

15.-Deitu egin digula? atzo **propio** esan nion ez deitzeko ba!

16.-Erabat **suminduta** omen dago eta ez du zurekin hitz egin nahi.

17.-**Bat-batean** konturatu nintzen liburua etxean ahaztu nuela.

18.-Aurten intxaurra oso **urria** omen da.

19.-Eskolaz aldatu da, hemen gustura dago, bestean **baztertu** egiten omen zuten.

20.-Lasterketa ondoren **ziplo** geratu zen.

21.-Oso pertsona **zentzuduna** da eta ziur nago erabaki zuzena hartuko duela.

agerikoa	eskasa	tupustean	itzali	artaziak	zokoratu	eskilak
sekulako		nahita		otzana		
korrika	hitzontzi	burlaka		erretxina		haserretuta
seko	justu-justu	zuhurra	metatzen	adorea		nabaritu